

Kultur Kale zikloa martxan

Lehen kontzertua gaur Abend-en Casual Blues eta White Towels taldeekin



Gorbeña, gatazken konponbideetan aditua, Landaberrin

Haur edo nerabeek, guraso, irakasle edo beraien artean izaten dituzten gatazken gaia, konponbide eta erantzuteko tresnak, jorratzen ari dira Landaberri institutu eta ikastolako guraso eta irakasleak GEUZeko Lucia Gorbeña adituarekin. Bere ustez, gatazka dagonean funtsezkoa da guraso eta irakasleak batera jardutea. / 4. orrialdea

Kultur kale zikloa Lasarte-Oriako udaltekoko Gazteria, Festak eta Kirola departamenduak, Xpression! Kultur Elkartarekin elkarlanean antolatutako kultura ziklo berria da. Lehen kontzertua gaur bertan izango da Abend tabernan eta helburua Taxio Arrizabalaga udal ordezkariaren hitzetan, "herriari ostiral arratsaldetan alternatiba kultural bat eskaintzea da".

Udala eta Xpression! elkartearen arteko lankidetzan Manuel Lekuona Kultur-etxean antolatutako ohi ziren ostirala arratsaldetako Gazte kontzertuetan jaio zen. 2011. urteko aurrera kontzertu hauek indarra galtzen joan ziren eta horrekin batera ikusle kopuruak behera egin zuten. "Hau dela eta 2012. urterako planteamendu berri bat egitea egokia iruditu zitzaigun" adierazi zuten Jokin Telleriak.



Taxio Arrizabalaga udal ordezkaria eta Jokin Telleria kultur programatzailea.

Parte hartze irekia

Planteamendu berri horren baitan, herriari gertuko alternatiba kultural bat eskaini nahi zaio eta ekitaldiak herriko taberna eta aretoetara eramahi izan dira.

Momentuz bost aretotan burutuko dira ekimenak, Jalgi, Abend, Donegal, SigloXX eta Mendi Kafe Rocken eta Kultur Kale zikloaren baitako ekimen guztiak doakoak izango dira. Parte hartzea irekia dela azpi-

marratu zuten antolatzaileek eta herriko taberna eta dendak parte hartzerantz animatzen dituzte.

Lehen programazioa otsaila eta martxoa bitartean burutuko da. Lehen kontzertua esan bezala, Abend-en izango da gaur 00:00etan Casual Blues eta White Towels taldeekin. Otsailaren 23an Donegall-en bakarriketa eskainiko du Mario Simancas-ek 22:30etan eta martxoaren 3an berriz, Jalgin 23:00etan Igelaren bandak joko ditu bere jazz eta folk doinuak.

Martxoaren 10ean, Siglo XX tabernan hip-hop-a izango da protagonista 20:00etan hasiko den Zepequeño & Pelayo Hip Hop Live!, Dj KA eta Dj set taldeen emanaldietan. Azkenik, martxoaren 16an 20:00etan Mendi Kafe Rocken The Back Tracks-en kontzertua egingo da lehen ekimen sortari amaiera emanez. •

Jaurlaritzaren murrizketen aurkako lan uzteak jarraipen zabala izan zuten

Eusko Jaurlaritzak zerbitzu publikoei ezarri dizkien murrizketei eta langileei zuzendutako neurri zorrotzei aurre egiteko asmoarekin, ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek atzo greba egiteko deialdia egin zuten.

Lasarte-Orian ikastetxeetan eta Landaberri ikastolan, zehazki izan zuten jarraipen gehien.

Landaberri ikastolako irakasleek bat egin zuten sindikatuen eskaerarekin eta eguerditik aurrera ez zen eskolarik izan.

Gurasoei banatutako oharrean azaltzen dutenez, neurri

berriek "ordezkapenak behar bezala ez betetzea, lan taldeak matrikularen parean ez handitzea, edo baliabide gehiago jarri gabe ikastetxeen zereginak entengabe handitzea" dakar eta horrek hezkuntza kalitateari kalte egiten diola azpimarratzen dute.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan eta Lasarte-Usurbil institutuan jakin arazi digutenez, lan uztearekin bat egin zuten irakasle multzo batek, baina ikastetxeek lanean jarraitu zuten.

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak eta Euskotrenek ere lau orduz eten zuten haien



Landaberri BHIko ikasleek goizeko hamaiketan amaitu zituzten saioak.

lana. Udalak 11:0etatik aurrera eta Euskotrenen goizeko 6:30etik 10:30era eta arratsaldetako 17:30etik 21:30era

bitartean egin zuten lan uztea. Enpresa publikoak zerbitzu minimoak ezarri zituen ordu horietan. •

GIZARTEA / 3

Familian berdintasuna lantzeko programa

INGURUGIROA / 4

Herriko eskoletan Zirt edo Zart murriztu ekimena burutu da

KIROLA / 6

LOKEko gimnastek hasiera eman diote jada txapelketa denboraldiari

Bideo Lagunak

BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com
www.bideolagunak.com



SARETXO JATETXEA

Otsailaren 11 eta 12an
San Valentín menu berezia
prestatuko dugu
24 €-tan

Ez ahaztu inauteritan ere hemen izango garela

Gaur gauean barrikotea 25 €-tan

Santa Barbara auzoa 92 • HERNANI • Tel.: 943 554675 / 943 556481

Neure kabuz



Hotza

Albiste artean bizí garenok badugu neurria galtzeko halako joera bat. Iristen zaigu zerbaiten berri eta hura aztertu eta eskaintzeko bitarte horretan ikuspegia galtzeko arriskua izaten dugu galanta.

Berdin dio ze motatako albistea den. Maiz, atzeritirik iristen diren gerra kontuak dira: batek ez daki irudi "itsusi" batzuk noiz eskaini behar diren edota noiz gordinkerian ez aritzeko, ezkutatu egin behar diren.

Gauza bera gertatzeko arriskua dago eguraldiarekin. Euskal Herrian badugu eguraldiaren berriegi begiak zabal zabal eginda kasu egiteko joera. Aintzinatik datorren zerbait inondik ere. Izango zuten gure arbasoek eguraldiarekiko halako menpekotasunen bat edo. Haren araberrak erabakia hartzeko premia seguru asko eta horregatik, gaur egun ere gainerako berrien gainetik dago eguraldiaren inguruko informazioa. Bai behintzat ikuslearen interes podiumean.

Eta horren harira, irudipena daukat aurreko urtetan ez ote diogun berez zeukan garrantzirik haruntzagoko pisu eta neurria eman eurite bati, edo elurra egin izanari. Jaun andreok, neguak hori du berarekin: hotz egiten duela, euria dakarrela gurean eta elurra ere bai, zenbaitetan.

Azken bi hotzaldiak ordea apartak zian dira: iragarritakoa baino zorrotzagoak. Hotz, oso hotz egingo zuela lau hai-zetara (haize hotzetara) zabaldu genuen eta motz geratu gara. Eta ondo dago hori: eguraldia oraindik erabat menderatzen ez dugunaren seinale baita. Hala jarrai dezala, giza-kiak hori ere kontrolatzen duen egunean gureak egingo duelako. Ibili epeletik.

Asier Odriozola

Zorion-agurrak



Amagoia

Zorionak amatxo eta ondo pasa. Irati, Jesus eta familia guztia.



Tina eta Antonio

Zorionak! Gozatu zuen urrezko etzeiak familia-koen artean. Bi muxu denon partetik.



Nacho

Zorionak txapeldun! Zure guraso eta familia osoaren partetik! 7 muxu handi!



Saioa

Lasai egon! Hamabostak ez dira hainbesterako. Primeran pasako dugu larunbatean.



Julen

Zorionak eta muxuak familiaren partetik. Ondo pasa!!!



Haizea

Oso ondo pasa zure lagunekin zure 10. urtebetetze ospakizunean. Gurasoak eta Amanda



Aingeru eta Naiara

Zorionak Bikote! Ondo pasa zuen urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partetik.



Maialen eta Nerea

Zorionak bikote eta muxu bana familiaren partetik.



Nora

Zorionak maitia zure 2 urtebetetzean!! Muxu handi bat Oier, aita eta amaxoren partetik.



Ainhoa

Zorionak zure lehen-gusuen partetik. Hamarrean 10!! Ondo pasa.



Ane

Etxeko printzesa gure bihotzeko erregina da orain! Zorionak eta zazpi muxu potolo urte bakoitzeko bat!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 60 euro. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Etxea alokatzen dut Zumaburrun. 3 logela eta balkoia ditu. Partikularra naiz. Harremanetarako, 660 549 308.
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako, 943 363 524.

Salerosketak

- Daewoo Lanos kotxea salgai 650 eurotan. Tel. 672 113 451.

Lan-eskariak

- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketa lanetarako, pertsona heldu eta haurren zain

tzarako eta etxeko lanetarako. Harremanetarako zenbakia, 653 319 644.

- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketa lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeko lanetarako. Telefono zenbakia, 648243984
- Txakurrak paseatzeko pertsona arduratsua eskaintzen da. Harremanetarako, 620 190 207.
- Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixok zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos, 680 983 527.
- Emakume esperientziaduna umeak edo pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Klaudia, 663 117 579.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Martin Urriza Zubitur, otsailaren 8an, 87 urte zituela.
- Emiliano Duran Macias, otsailaren 3an, 80 urte zituela
- Miguel Pecharroman Garcia, urtarrilaren 30ean, 79 urte zituela.
- Alejandro Garmendia Mugica "Artsai", urtarrilaren 29an, 83 urte zituela.
- Francisco Guerra Hevia, urtarrilaren 27an, 77 urte zituela.

Jaiotza

- Aizpea Barcina Etxebeste, urtarrilaren 30ean.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 10

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 11

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Igandea, 12

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Astelehena, 13

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Astearte, 14

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Asteazkena, 15

Urbisondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Osteguna, 16

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chulla, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Tabun Kultur Elkarte, Geltokiakalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erretakzioa: txintxarri@tabun.com • Publikatzailea: publikatzailea@tabun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@tabun.com, tabun@tabun.com.

Txintxarri: ez du bere gain hartzen irizki-arikak eta irakurleek hildakiko gumean aliantzarikoren erantzukizunak.



Sara Gonzalez psikologoa gizon eta emakumeen berdintasun eta desberdintasunei buruz hitz egin zuen.

GIZARTEA

Emakumeen eguneko egitaraua antolatzekeo asanblada

Martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, asanblada bat antolatu dute herriko emakumeek bere egunaren inguruko egitaraua osa dezaten.

Lehen bidela, otsailaren 14ean, asteartean, izango da, 19:30ean, Manuel Lekuona kultur-etxekeo hitzaldi aretoan.

Lasarte-Oriako emakume guztiak bertan parte hartzera animatzen dituzte antolakuntzakoek. •

HEZKUNTZA

Aurrematrikula egiteko azken eguna

Landaberri ikastola eta Sasoaeta-Zumaburu ikastetxean 2012-2013 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea gaur amaitzen da.

Ikastetxeek ikasle berrien gurasoei bilerak informatiboak egin eta gero, haurra matrikulatu nahi duten gurasoei gogorazten diete gaur dela izena emateko azken eguna. •

KIROLA

Aktibazio muskularrari buruzko hitzaldia

Gorka Ipinza entrenatzaile pertsonalak "Aktibazio muskularrari kirolarientzat" hitzaldia eskainiko du, otsailaren 15ean, asteazkenean, arratsaldeko 19:00etan Aktibazio Muskularrari Training enpresaren egoitzan, Blas de Lezo 2 behean.

Hitzaldira joateko interesa edo gaiari buruz gehiago jakin nahi duten herritarrek, 607 797 205 telefono zenbakira ere deitu dezakete. •

KIROLA

Futbol porrako bigarren buelta

Ostadar SKT-k antolatzen duen 2011-2012 denboraldiko 2. Futbol Porrako boletoa bete eta parte hartzeko azken egunak dira hauek. Izan ere, bihar otsailak 11a, arratsaldeko 16:00ak arte, utzi ahal izango dira txartelak parte hartzen duten tabernatan.

Sariei dagokionez, Porrako lehenengo eta bigarrenak 360 eurotako eta 180 eurotako saria jasoko dituzte. Jardunaldi bakoitzean 60 eurotako saria jasoko du irabazleak eta hiru urdaiazpiko zozketatuko dira parte hartzaile guztien artean. Azken sailkatuak ere saria izango du, beste urdaiazpiko bat. Urtean egin diren bi porren artean onenak, berriz, 1000 eurotako saria jasoko du.

Ostadar kirol taldeak lasarteoritarrei porra egiteko eta ekimenean parte hartzeko gonbidapena luzatu die, hain juxtu, bide batez Ostadarrek antolatzen dituen kirol ekintzei ere lagunduko diotelako. •



DANOK KIDE ELKARTEA

Urazpiko zinema zikloak harrera ona izan zuen

Danok Kide elkarteak Lasarte-Oriako Udala eta Real Sociedad taldeko urpeko sailaren laguntzaz urazpiko nazioarteko zinema zikloari hasiera eman zitzaion astelehenean Manuel Lekuona kultur-etxean.

Lehen saio honetan adin desberdinetako herritarrek hurbildu ziren aretora.

Hasieran, Jesus Egizabal eta Real Sociedad taldeko urpeko saileko lehendakariak Nano Cordovillak zikloaren nondik norakoak azaldu zituzten.

Ostean, *Gasteropodoen mundua* eta *Ekuador, eguzkiaren ibaiak* filme laburrak ikusi zituzten. Bi filme hauetan itsaso eta ibaietan dauden espezie desberdinak ezagutu ahal izan zituzten herritarrek, hala nola, itsas-barea edo arrautzak zuhaitz hostoetan jartzen dituen arraina.

Saioaren amaieran, Real Sociedad taldeko urpeko saileko lagunek herritarrek ikusitako bi filmeei buruz zituzten galderak erantzun zituzten. •

Familia osasuntsua, berdintasunean oinarritua

Tailerra egingo da Emakumeen Zentro Zibikoan

Gipuzkoako Guraso Bananduen elkarteak AGIPASE, Lasarte-Oriako Udala eta Emakumeen Zentro Zibikoaren elkarlanarekin, "Familia Berdintasunean" programa jarri du martxan Lasarte-Orian. Hitzaldi eta tailerren bitartez, gizon-emakumeen aukera-berdintasunari buruz sensibilizatzea du helburu.

Hitzaldia

Elkarteak "Gizon-emakumeen arteko berdintasuna: eronka edo errealtatea" hitzaldia eskainiko zuen atzo arratsaldean Villa Mirentxun.

Honetan, Sara Gonzalez psikologoa aritu zen hizlari familia, edozein egitura duela, instituzio osasungarria izan dadin.

Psikologoak adierazi zuenez, kulturak eta gizarteak eragina dute emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasunean.

Lehenik historikoki desberdintasun hori egon dela azaldu zuen, emakumeak dependentsia ekonomiko eta politikoa zuela. Emakumearen lana publikoki ikusten ez zela gogoratu zuen. Baina, era berean, gizonak ere emakumearekiko dependentsia zuela adierazi zuen.

Jarraian ohituraz emakume, zein gizonek izan behar dituzten baloreak aztertu ziren eta kulturak eta hezkuntzak desberdintasun horrekin zer ikusia dutela.

Villa Mirentxuko hitzaldi aretora hurbildu ziren emaku-

meez haien iritzia eta adostasun eza adierazteko aukera izan zuten, baita galderak egiteko ere.

Tailerra

Hitzaldiaz gain, Guraso Bananduen Elkarteak, Lasarte-Oriako Emakumeen Zentro Zibikoan dotozen hiru ostegunetan, otsailak 16, 23 eta martxoaren 1ean, 18:00etatik 20:00etara "Berdintasunean hezteak zer dakarrit eta nola egin dezaket" tailerra burutuko du.

Sara Gonzalez adituak hitzaldian azaldu zuenez, "tailer honetan bakoitzarentzat berdintasuna zer den ikusiko dugu".

Elkarteak herritar guztiak animatzen ditu ekimen honetan parte hartzera. •

Bilduk erronka berriak finkatu ditu

Lasarte-Oriako Bilduko kideak lehen aldiz Batzar Orokorrean elkartu ziren asteazken iluntzean Villa Mirentxun.

Bertan udal gobernua osatzen duten zinegotzi eta alkatetza bera hitza hartu eta orain arteko kudeaketaz aritu ziren. Bakoitzak bere arloari dagozkion gaiak azaldu zituen baita orain arte hartutako erabakien nondik norakoak ere.

Horretaz gain, alderdiaren baitan sortu diren lan taldeak aurkeztu ziren. Aipagarria da 50 bat lagun biltzen direla lan-talde hauetan, eta etorkizunera begira, urte beteko epearekin, erronka berriak finkatu zituztela alderdi honetako kideek.



Taxio Arrizabalaga zinegotzia bere azalpenak ematen Villa Mirentxun.

Batzar irekia

Bilduko kideak bertaratzeaz gain, alderdiak deialdi irekia egin zuen eta hainbat herritar ere gerturatu ziren bilerara

udal gobernua hartutako erabakiak ezagutu eta etorkizuneko helburuak zeintzuk diren bertatik-bertara entzun ahal izateko. •

Lucia Gorbeña GEUZ Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroko koordinatzailea

“Gatazkatan guraso eta irakasleek batera jardutea funtsezkoa da”

Irakasle eta gurasoentzat hitzaldi eta tailerra zuzentzen ari da Landaberri ikastola eta institutuan

Haur edo nerabeen inguruan gertatzen diren gatazkei, hauen konponbideari eta erantzun egokia emateko tresnei buruzko tailerra zuzenduko du otsaila eta martxoan Landaberri ikastolan eta institutuan GEUZ Gatazka Eraldatzeko Unibertsitate Zentroko Lucia Gorbeña koordinatzaileak. Ikastolan ondo ezagutzen dute bera 2005-2006 ikasturtean etorri zen eta lehenengo aldiz. GEUZ arduratzen da ikastolako bizikidetzak plangintzaz eta nahiko garatua daukate.

Jon ALTUNA IZA

Landaberri ikastola eta institutuak antolatu dute elkarbizitzaren eta gatazken konponbideari buruzko topaketa bi ikastetxe hauetako irakasleei eta gurasoei zuzendurik. Astelehenean Landaberri ikastolako irakasleekin hasi zen ikastaroan, "irakasle eta gurasoen arteko harremana hobetzeko gako eta estrategia" gaia jorratuko dute.

Lucia Gorbeña adituaren ustez, funtsezkoa da bien arteko lotura eraginkorra, "arazoak edo bi aldeen jarduna eskatzen duten egoerak daudenean bi aldeek jokabide berbera izan dezaten. Koordinatuak baldin badaude eta elkarri laguntzen badiote emaitzak ere hobekak izango dira ikaslearen hezkuntza integrala lortzeko helburu horretan".

Gatazka asko al daude eskola ezberdinetan?

Badaude kasuak. Zaila da lehen baino gehiago edo gutxiago dauden esatea. Ikerketa historikorik ere ez dago konparaketa egiteko. Dena den, esan dezakegu irakasleek lehen baino arazo gehiago eta konplexuagoak ote dauden susmoa dutela. Baina ezin dugu esan argi eta garbi egun arazo gehiago dagoenik.

Nola erantzuten zaie aferak horiei?

Ahalik eta ondoen erantzuten zaiela argi dago. Zentroetan elkarbizitza plangintza ugari dira, Jaurilaritzak duela urte batzuek jarri zituen abian, hain juxtu arazo guzti hauei aurre egiteko baliabide gehiago, jokabide egokiagoak eta estrategia berriak izateko. Beti ere, zigorrean oinarritutako garai bateko eredu tradizionaletatik urrundu eta elkarbizitza baloreak, elkarrekiko errespetua, elkarrizketa, erantzukizuna, ... nagusi dituen hezkuntza ikuspegi batetik.

Estrategia asko erabiltzen dira gaur egun, eta asko berriak dira gainera. Esaterako haurrek eurek euren arazoak konpontzen saiatzeko tresnak lantzen dira: Lehen Hezkuntzako *adostokia* adibidez, txoko batean belarri-aulkia eta aho-aulkia jartzen dira, funtzionatzeko arau batzuek, eta espazio horretan egoten dira haurrak eurak, hitz eginez edota elkarri galderak eginez akordio batera iritsi arte.

Ikastetxeen gatazkek konpontzeko bitartekotza praktikak daude, eta ikasgelatan prebentzio programa batzuek ere garatzen dira. Hiru urteko haurrekin hasita, beste haurrekin harreman hobekak izate-



ko nola jokatu behar duten erakusten zaie, haserre eta laguna jotzeko gogoa jartzen zaienean zer egin behar duten, besteekin arazoak nola konpondu, nola hitz egin, nola hartu erabakiak... Hau guztiaren aspalditik lantzen da eskoletan. Eta espero dugu honek arrastoa utziko duela gerora, haurrek motxila elkarbizitza balorez eta tresnez beteta eramango dutela etorkizunera.

Eta gurasoek, zer paper dute gatazkatan?

Gurasoen paper nagusia batetik ikastetxeei babesa ematea da eta bestalde, bere jokabideak ikastetxearen norabide berbera izan dezala. Hori izango da Landaberri eman guraso diren hitzaldien oinarria. Ikastetxeak eta gurasoek luzatzen duten mezua berbera bada, eragina indartsuagoa da noski.

Nolako izango da gurasoekin burutuko den tailerra?

Gurasoekin lau arlo nagusitan lan egingo dugu, lehenengoan saiatuko gara guraso eta seme-alaben arteko aferak eta haurren artekoak hezkuntza aukera bezala ikus ditzaten. Gatazkek ugari dira bizitzan, edozein harremanetan, ez da gatazkarik gabeko sendi, lagun koadrila edo eskolarik. Aferak horiek modu ezkorrean hartu daitezke, edo modu baikorago batean eta hori da kontua, horrelako arazoei aurre egiteko ikasi dezatela. Zenbat eta gehiago praktikatu, baliabide gehiago izango ditu haurrak gerora.

Jorratuko den bigarren arloa, komunikazio trebetasunak buruzkoa da, entzuten ikasi, egoera zailetan gauzak esaten, galdera egokiak egiten, ... Hirugarren arloan emozio handiak eramateko trebetasunak landuko dira,

haserre bizian jartzean zer egin, sutan jarri eta jokabide basatiak hartu baino lehen, eta laugarrenean gatazkek konpontzeko prozesuak, hau da, nola negoziatu seme-alabekin, nola hartu erabaki amankomunak sendian. Honek ez du esan nahi seme alabekin dena negoziatu behar denik, ez eta pentsatu ere. Arau, diziplina eta mugei buruzko beste arlo hau zaintzea ere behar beharrezko da, bi aldeak dira oso garrantzitsuak, eta kasu honetan, bestea, gatazken konponbidearena jorratuko dugu.

Zergatik da interesgarria hitzaldia gurasoentzat?

Arrazoi xume batengatik: etorri diren guztiak normalki gehiago nahi dutelako, hainbat ikastetxetako egin ditugun honelako tailerretan oso pozik izan dira sendiak.

Gainera, hitzaldietara etorri beharko lirateke, eguneroko bizitzan erabilgarri diren hainbat tresna emango zaielako, saiotik etxera joan eta egun horretan bertan praktikan jartzeko modukoak, eta baita, tailerra oso praktikoa delako ere, ez da azalpen teoriko luzerik izango, segituan egunero gurasoek bizi dituzten egoerak lantzen hasiko gara. Eta elkarrekin 20 guraso egoteak bi elementu oso aberasgarri ditu, batetik tailerren beraren edukia eta bestetik beste familien esperientziak: 20 guraso elkartzean batzuek besteie irakatsi diezaiokeguna, ia ia, tailerrek berak erakusten duena bera bezain inportantea da. •



Astelehenean hasi ziren Landaberri ikastolan irakasleen formakuntza saioekin.

Elkarbizitzaren inguruko hitzaldiak gurasoentzat

Irakasle eta gurasoen arteko harremana hobetzeko edota sortzen diren aferak konpontzeko tresnak ezagutaraziko ditu GEUZ elkarteak Lucia Gorbeña Landaberri ikastola eta institutuan eskaintzen ari den hitzaldietan. Bi ikastetxe hauetako gurasoentzat otsailaren 29an eta martxoaren 7an antolatu dituzte hitzaldiak, eta besteak beste

guraso eta seme-alaben arteko negoziaketa, bitartekotza eta elkarrizketa jorratuko dituzte.

Landaberri ikastola eta DBH institutuak elkarrekin antolatu dituzte hitzaldiak, batetik ikastetxe hauetako irakasleak gatazkei aurre egiteko tresna hauetan trebatzeko eta bestetik gurasoei ere tresna horiek ezagutzeko aukera zabalteko. •

‘Murriztu Zirt edo Zart’ eskoletan

■ Landaberri eskolako ikasleek asteartean parte hartu zuten hondakinak gutxitzeko Sanmarko Mankomunitateak bultzatutako kanpaina honetan ■ Asteazkenean Sasoetan egin ziren saioak

Azken urte hauetan egin bezala, Sanmarko Mankomunitateak bere eremuko herrietan hainbat sensibilizazio kanpaina jarri ditu martxan. Guztira hiru izango dira ekimenak eta lehena haurrei zuzendutako “Murriztu Zirt edo Zart” izan da. Ekintza hau Landaberri eta Sasoeta eskoletan burutu da aste honetan eta birziklapena, berrerabilera eta hondakin murrizketa izan du ardatz. Lasarte-Oriako haurrak jolasean aritu dira “okajoko” erraldoi batean eta hainbat proba gainditu behar izan dituzte bukaerara iristeko. Besteak beste, ahalik eta hondakin gutxien sortuz erosketa egitea egokitu zaie edota zaborra behar den ontzietan botatzea.

MAIDER AZURMENDI

Sanmarko Mankomunitateko lehen hezkuntzako eskola guztiei dago zuzenduta kanpaina eta guztira 3.000 ikaslek hartu ahal izango dute parte ingurumen-hezkuntzako “Murriztu Zirt edo Zart” ekimenean. Egun hauetan saioak herriko Sasoeta eta Landaberri eskoletan burutu dira.

Azalpen teoriko batzuk entzun eta gero praktikan jarri behar izan dute ikasitakoa. Flextitit Flextira jolasarekin egin behar izan dute. Hau “oka” antzeko jolas erraldoia da eta haurrak lau taldetan banatuta aritu ziren dagoa botatzen laukitik laukira fitxa mugituz. Birziklapena eta hondakin murrizketan oinarritatutako probak burutu behar izan dituzte jolasean aurrera egiteko. Besteak beste, birziklatzeko onzi egokietan banatu behar izan dituzte hondakinak edota erosketak ahalik eta hondakin gutxien eraginez burutu.

Sentsibilizazioa

Ekimen honen helburuak dira, eskola komunitatearen jokabide eta ohiturak aldatzea, bere hurbileko ingurunean, hondakin gutxiago sortzen lagundu dezan. Hondakin sorkuntzak sortzen duen arazoan eta hau

konpontzeko guztien parte hartzearen premian gutako bakoitzak duen protagonismoari buruz kontzientzia hartzea ere bada kanpainaren jomuga.

Azkenik, hiri-hondakin gainera ezagutzak hedatu nahi izan dira, prebentzioan, hondakin kantitatea murriztean eta berrerabilerak duen garrantzian arreta berezia jarritz, gaikako bilketa alde batera utzi gabe.

Ikasi eta ondo pasatzea

Haurrek gogotsu hartzen dituzte halako jolasak Ainhoa Diez de Salazar hezitzailearen hitzetan. Saioaren helburua birziklapena edota hondakin murrizketak duen garrantziaz ohartaraztea da baina baita ondo pasatzea ere.

Haurrek normalean gaia eskolan lehendik jorratuta izaten dute eta arreta jartzen diote azaltzen diren gaiak. Dena jolasen bidez egiten da eta horrela errazagoa da hauen arretari saio guztian zehar eustea.

Berrerabilera erronka

Birziklapenari dagokionez, argi dute haurrek zein ontzitan bota behar den gauza bakoitza, urdinean hau, horian bestea... baina edukioontzi berdean beira eta kristalaren arteko ezberdintasuna bitan galdetu behar izan zuten batzuk.



Sasoeta eskolako ikasleak Flextitit Flextira jolasaren aurrean azalpenak adi-adi entzuten.



Landaberri astearrean burutu ziren tailerrak eta gustora aritu ziren ikasleak jolasean.

Batez ere, berrerabilerak duen garrantziaz ohartu behar dira orain eta ideia horretan hezi. Izan ere, hezkuntzak duen garrantziarengatik burutzen dira halako ekimenak gizarte honetan kopurua

murriztu ahal izateko, eta gure zaborrak ingurumenean duen eraginaz norbera konturatuzko.

Aldi berean, erosketak ondo egiten ere jakin behar da, ondoren etxean ahalik eta zabor gutxien sortzeko eta

horretan saiatu dira ikasleak. Gerora, etxean aplikatu behar dute ikasitako guztia eta kasu askotan gurasoei azalduko diete ekintza hauen bidez ikasitakoa, denen artean zaborra murriztu ahal izateko. •

SALAZAR PROFESIONAL

ILEA-APAINZKEKO ETA EDERGINTZAKO PRODUKTUAK



Geltoki Kalea 15
Tel.: 943 360211
salazar@salazarpro.net
www.salazarpro.net



Ez ahaztu,
San Valentín egunerako
oparia!

Ehiza txapelketa eta arrantza baimenak

Buruntz-Azpi arrantza eta ehiza elkarteak batetik ehiza txapelketa antolatu du otsailaren 25ean eta bestalde herritarrei gogoratu nahi die arrantzan egiteko baimenak berritzeko epea ireki dela.

Ehiza txikiko txapelketa

Buruntz-Azpi elkarteak ehiza txapelketa Buruntza mendiko magaletan burutuko da, otsailaren 25ean, igandean, goizeko 9:00etatik aurrera.

Elkarteak jakin arazi duenez, zakurrekin egiten den ehiza txikiko lehiaketa izango da eta elkarteak bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren otsailaren 23 ostegunera bitartean.

Arrantza baimenak

Honetaz gain, Buruntz-Azpi elkarteak jakin arazten du, arrantza baimenak berritzeko epea ireki dela.

Baimen hori astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean eskatu ahal izango da Buruntz-Azpi elkarteak Basaundi bailaran daukan egoitzan. •

Txapelketa denboraldia hasi da LOKEko gimnastentzat

Eskolarteko eta Amateur mailako txapelketak dituzte larunbat honetan


LOKEko gimnastak lanean jardun dira ikasturte hasieratik, koreografia berriak prestatu, tresna berrietan trebatu... Larunbata honetatik aurrera, lan hori guztiaren fruitua aurkezteko garaia izango da. Eskolarteko eta amateur mailako txapelketako lehenengo sailkapen saioa izango baita Arrasateko Uharkape pilotalekuan.

Bakarkakoa

LOKEko zortzi gimnasta izango dira bertan maila eta modalitate ezberdinetan lehiatzen. Lau izango dira bakarkako lana egingo dutenak, Garazi Gomez, Aizpea Arroyo, Ane Ayestaran eta Ariadne Aguado.

Garazi Gomez nagusien mailan lehiatuko da eta borrekin egingo du lan. Uztaierekin duten trebetasuna erakutsi beharko dute, aldiz, Aizpea eta Anek jubeniletan eta Ariadne kadete mailan.

Maite Rueda LOKEko entrenatzaile taldeko ardura-dunak azpimarratu digunez,



LOKEko kadete taldea larunbatean Arrasaten lehiatuko da.

"Garazi Gomezek zail izango du aurten. Nagusien mailara igo da eta iaz A taldean txapelaldun izanagatik, onenen taldean izango da."

Garazi Gomez-ez gain, Aizpea Arroyok aukerak izan ahal dituela aurreratu digu entrenatzaileak, "iaz fin ibilizen eta gogor egin du lan hilabete hauetan."

Bikote eta taldea

Hautetaz gain, bikote eta taldeko txapelketak ere izango dira.

Bikotekako txapelketan Ainarra Apezteguia eta Maria Millan izango dira kadete mailako lehiak.

Maite Ruedak azaldu digunez, "aurten ezarri duten maila berria da. Honetan, bi

gimnastek bat bezala egiten dute lan. Honela, Ainarak asteburu honetako saioan parte hartuko du uztai lana eginen eta Mariak bigarren fasean, martxoaren 25ean, borrekin. Bakoitzak tresna bat egingo du eta bien puntuak batuko dituzte."

Honek tresnen erabileraren ikaskuntzan erraztasunak ematen diela aitortu du entrenatzaileak, "era honetara, aurten tresna bat menderatuko dute eta hurrengo urtean, beste batekin hasi gaitzke lanean".

Era berean, kadete mailako taldea Bergarara joango da. Honetan Ariadne Aguado, Ainarra Apezteguia, Maria Millan, Ane Loiarde, Ane Ayestaran eta Alazne Gonzalezek osatutako taldeak bi lan desberdin egin beharko ditu, uztai eta pilotekin.

Udaberri Saria

LOKEko txikiak, berriz, hurrengo hilabetean hasiko dira lehiak. Udaberriko sarian izango da eta bertan hiru talde izango dira. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 11

11:15ean, Ostadar-Beti Ona (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Michelinen.

11:15ean, Ostadar-Astigarragako Mundarro (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

11:30ean, Tolosa-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Usabal, Tolosan.

13:00etan, Texas Lasartearra-Tolosa (I. Kadetea, kopa) Michelinen.

14:30ean, Ostadar-Urnieta (I. kadetea, igoera) Michelinen.

16:00etan, Texas Lasartearra-Amara Berri (I. jubenila, kopa) Michelinen.

16:00etan, Beti Ona-Ostadar (Erregional Gorena) Beraun, Errenterian.

17:45ean, Texas Lasartearra-Mariño (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

Igandea 12

12:15ean, Urola-Ostadar (Infantil txiki, kopa) Argixao Zumarragan.

16:00etan, Urola-Ostadar (I. Erregionala, igoera) Argixao Zumarragan.

16:00etan, Sporting de Herrera-Ostadar (Alebin kopa) Herrera, Donostian.

17:30ean, Real Union-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala, igoera) GAL, Irunen.

ARETO FUTBOLA

Ostirala 10

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30ean, Indaux-Ilargi

20:20ean, Balerdi-Izarra

21:10ean, Oria kristaldegia-Ilum

Larunbata 11

18:00etan, Ibarra-Buruntza KT Aldaz H.K. (Nazional III. maila) Belabieta kiroldegia, Ibarra.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, Los Tiburones Rojos-El Bar de Mau

10:10ean, Txindoki-Ayete

11:10ean, El Punto-Naiban

12:10ean, Izkiña-Viña del Mar

13:10ean, ISU Leihoak-Buenetxea

14:10ean, Trumoi-Dakara

Igandea 12

10:30ean, ISU Leihoak-Tolargi (Euskal Liga) Kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 10

19:15ean, Antigua-Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. nagusia) Ibaeta, Donostian.

20:15ean, Txapañain 2-Intza (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. kadetea) Beti Alai, Ordizian.

Larunbata 11

16:00etan, Intza-Gazteleku I (Errendimendu txapelketa, infantilak) Michelingo pilotalekua.

ATLETISMO

Larunbata 11

10:00etatik aurrera, LOKEko gazteek kadete, junior eta jubenil mailako Euskadiko txapelketa dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostia.

16:45ean, LOKEko Gaizka Ormazabalak etorkizuneko atleta mailako Espainiako txapelketan parte hartuko du, Antequeran.

JUDO

Larunbata 11

16:00etatik aurrera, LOKEko Oscar Garrido judokak kadete mailako

Euskadiko txapelketan parte hartuko du, Lezon.

Igandea 12

10:00etatik aurrera, LOKEko judo-kek 23 urte azpiko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute, Lezon.

BORROKA

Larunbata 11

09:00etatik aurrera, LOKEko Amaia Curiel borrokalaria Espainiako txapelketan parte hartuko du, San Javier, Murtzian.

ERRUGBIA

Igandea 12

10:30ean, Beltzak Ostadar Jalai-La Unica (Infantil ez federatuak) Iruñean. 10:30ean, Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjaminek entrenamendu teorikoa egingo dute, Michelinen. 11:30ean, Beltzak Ostadar Jalai-Rioja (Infantil ez federatuak) Iruñean.

IGERIKETA

Larunbata 11

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzalde IKT-ko gazteek Gipuzkoako

Neguko Txapelketan izango dira, Tolosan.

Igandea 12

10:00etan eta 17:00etan, Buruntzalde IKT-ko gazteek Gipuzkoako Neguko Txapelketan izango dira, Tolosan.

GIMNASTIKA

Larunbata 11

10:15ean eta 15:30ean, LOKEko gimnastek Eskolarteko eta Amateur mailako txapelketetako lehenengo sailkapeneko saioan parte hartuko dute, Uharkape pilotalekua, Bergaran.

DUATLOIA

Larunbata 12

10:00etatik aurrera, herriko duatla talde batek Barakaldoko duatloian parte hartuko du.

BOLA-JOKOA

Igandea 12

10:00etan, Ostadar SKT-ko bolo jokalariek bikotekako txapelketako jardunaldia dute, Seguran.

Egunero

Erakusketa

RUDY artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **otsaila erdialdetik aurrera.**

Ostirala, 10

Kontzertua

KULTUR KALE ZIKLOAREN lehenengo saioa, CASUAL BLUES eta WHITE TOWELS taldeek blues doinuak eskainiko dituzte. **ABEND KAFE ANTZOKIA, 00:00etan, Doan**

Igandea, 12

Zinea

HAURREN ZINEA atalaren barruan, "VICKY BIKINGOA ETA THORREN MAILUA" filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **17:00etan, EUSKARAZ. Sarrera 3,40 euro.**

Astelehena, 13

Zinema

DANOK KIDE elkarteak antolatutako *Urpeko Zine Zikloaren* bigarren saioa: "Bizitzaren leihoak" eta "Mundu amaierako itsasoa" filmak ikusiko dira.



Bizitza aldaketa

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, HELDUENTZAKO ZINEA atalean Josh Radnor zuzendariaren "HAPPY THANK YOU MORE PLEASE". Sam Wexler idazle gaztearen bizitza azaltzen da film honetan. Baina metroan galduta dagoen ume bat aurkitu eta honek hankaz gora jarriko du ordura artekoa idazlearen bizitzan.

IGANDEA 12
19:30ETATIK AURRERA
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
GAZTELANIAZ

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan. GAZTELANIAZ. Doan**



Osteguna, 16

Kontzertua

LASARTE-ORIAKO UDAL MUSIKA ESKOLAKO ikasleek INAUTERIKO KONTZERTU BUFOA eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan.**

Larunbata, 18

Kontzertua

INAUTERI OLINPIKOETAN ondo pasatzeko aukera, SALDA MR DUBBIN DJ-ak funk, salsa, afrikar musika... motak desberdinetako doinuak nahastuko ditu saioan. JALGI TABERNAN, **23:30ean.**

Astelehena, 20

Zinema

DANOK KIDE elkarteak antolatutako *Urpeko Zine Zikloaren*

hirugarren saioa: *Maldivas, 20'12"eta "Pelajiar esparrua"* film laburrak. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **19:00etan. GAZTELANIAZ. Doan**

Osteguna, 23

Zinea

OKENDO ZINEMA TALDEAREN eskutik, OSTEGUNEKO ZINEAN Sebastián Borenszteinen "UN CUENTO CHINO" filma ikusgai izango da. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean, GAZTELANIAZ. Sarrera, 4,40 euro.**



Ostirala, 24

Antzerkia

MIKEL PAGADI, EGOITZ LASA ETA NAGORE ARANBURUK BODOLOGUAK antzerkia eskainiko dute. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **20:30ean, EUSKARAZ. Sarrera online, 5 euro eta leihatilan, 6 euro.**

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturtxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5-ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 10:45era

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldzikarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zembakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz, Geltoki kalea 4.

Oharrak

Xirimiriren batzarra bihar
Bihar, larunbata goizeko 10:00etan Xirimiri elkarteak urteko batzarra burutuko du.

Kotxeko giltzak galdu dira Urbarten
Lasarte-Oriako herritar batek kotxeko giltzak galdu zituen urtarrilaren 31a asteartean, Urbarten.

Norbaitek aurkitu baldin baditu, 616 333 017 telefono zembakira, Pili, deitu dezala.

Janaria manipulatzeko ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatuak ikastaro berria antolatu du. Ostalaritzako sektoreari zuzenduta dago eta Osasun Sailak eskatzen duen auto-kontrolaren inguruko edukia landuko dira.

Ikastaroa otsailaren 13an izango da Anbulatorioko bigarren solairuan dagoen erabilera anitzeko aretoan 16:00etik 20:00era.

Pertsonako 45euro ordaindu beharko dira eta langabeteak 35 euro. Informazio gehiagorako OMIC 943361605 edo Elkolab, S.COOP. 943533303 telefonoz.

Tituluak jasotzeko aukera institutuan

2009-2010 ikasturtean DBHko eta Batxilergoko ikasketak "Lasarte-Ursbil BHI" institutuan amaitu zituzten ikasleek dagoeneko euren tituluak eskuragarri dituzte ikastetxearen idazkaritzan. Beraz bertan jaso dezakete tituluak.

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zerbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrean dagoela.

Marrakzi eta pintura klaseak

Lasarte-Oria Bizilagun Elkar-

teak jakinarazten du, marrazki eta pintura klaseetan izena emateko aukera dagoela.

Klaseak Manuel Lekuona Kultur-Etxean dira asteazken eta ostiraletan 18:30etik 20:30era eta larunbata 09:30etik 11:30era.

Udalari proposamenak luzatzeko aukera

Lasarte-Oriako Udalak herritarren parte hartzea sustatzeko iradokizun orrialdea duela gogora arazten du.

Orrialdea Udaleko harrean dago eskuragarri, baita baita www.lasarte-oria.org orrialdean ere. Idatzi ostean, Udaletxeko harreraren dagoen postontzi berdean utzi edo iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikora bidali behar da orrialdea.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Logo Lehiaketa

Kukuka antzerki eta dantza eskolako logoa aukeratzeko lehiaketa martxan jarri du elkarte honek.

Parte hartu nahi duen pertsona orori irekia izango da, baina gehienez bi diseinu aurkeztu ahal izango ditu.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira. Lanak Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.



laz, inauterietako gaia, San Ferminak izan zen eta eguraldia lagun herritar askok hartu zuten festan parte. Aurtengo inauteriak ere jendetsuak izatea espero dute antolatzaileek.

Aste bete falta da olinpiadan murgiltzeko

■ Ostegun Gizen egunetik izango da inauteri giroa Lasarte-Orian ■ Kirola egiteko aukera izango dute gazteek ■ Herria girotzeko etxeetako balkoiak apaintzeko eskatu du Udalak

Aste bete geratzen da Inauteriei hasiera emateko. Milaka mozerro desberdin ikusiko dira Inauterietako lau egunetan zehar. Izan ere, Tolosaren antzera, Lasarte-Oriak ere Ostegun Gizen egunean emango dio hasiera jai giroari. Olinpiadak izango dira gai nagusia, baina Euskal Inauteriek ere izango dute bere zer tokia.

Inauteriak ate joka ditugu. Mozorroak prestatzeko egun gutxi geratzen dira. Aurten lau egunez izango da, gainera, gure herria Inauterietako giroan.

Musika eskola lehena

Ostegun Gizenean, musikarekin emango zaie hasiera 2012 urteko Inauteriei.

Musika Eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskainiko dute Manuel Lekuona Kultur-etxean, 19:00etatik aurrera.

Musika Eskolako ordezkariek azaldu digutenez, Txoko2 taldeko txikiek parte hartuko dute emanaldi honetan.

Hauetaz gain, trikitilari, flauta, gitarra, abesbatza eta musika hizkuntzako ikasleak ere izango dira Manuel Lekuonako areto nagusian.

Ikastetxeak

Ostiralean, berriz, herriko ikastetxeen txanda izango da eta astebururako motorrak berotzen hasiko dira etxeko txikiak.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxe gazteek Sasoeta eraikineko patioan olinpiada-festa izango dute eta ondoren txokolate jana.

Landaberi ikastolan Zubietako eraikinean ere Joko Olinpikoetako pertsonaiak izango dira nagusi.

Garaikoetxean, berriz,

Euskal Inauteriko pertsonaiak dantzan egingo dute patioan eta Miel Otxin erreko dute.

Inaugurazio ekitaldia

Olinpiaden izpiritu eta nazioarteko kirolariak iritsiko dira larunbatean Lasarte-Oriara. Korrikalariak, igerilariak, epaileak, txirrindulariak, maskotak... mozerro ugari izango da gure herriko kaleetan.

Goizeko 11:30etan hasiko da jai, Amalur trikiti eta Pandero eskolako eskutik.

Joko olinpikoen irekiera ekitaldia 12:00etan burutuko da Okendo plazan.

Une horretan olinpiar zuzia piztuko da eta hau herriko hainbat tabernetatik igaroko da Inauterietako sua hedatuz: Artizar, Dakara, Ilargi, Sancho, Andatza, Kanto, Galicia, Buenetxea, Abend, Yolanda, Insausti, Avenida eta Okendon jarriko den karpatik pasatuko da.

Zuzia 12:30ak aldera iritsiko da berriro Okendo plazara eta orduan Zumetarrak eta Zakilibeltz taldeek inaugurazio ekitaldi honetarako bere-

ziki prestatutako ikuskizunak eskainiko dituzte.

Aldi berean, Tapeo Olinpikoari emango zaio hasiera herriko tabernatan. Ibilaldia Gauerdia txarangaren laguntzaz egingo da.

Herri kirolak

Baina ez da guztia gozamen izango, herriko gazteek izerditzeko aukera izango dute, herri kirolekin.

Gazte Kluba, Kuadrilategi eta Kale Hezitzaileen taldeko antolatzaileek jakin arazi digutenez, "bost kideetako taldeak osatu beharko dituzte gazteek". Egunean bertan izena emango ahal dela ere azpimarratu dute.

Kirola egin edo gure herrian hain ohikoa den edalontzi-altxaketa egin ostean, 14:30ean bazkaltzeko ordua izango da. Horretarako, Udalak Okendon karpa jarriko du, baina norberak bere janaria eraman beharko du.

Kalejira eta olinpiada

Arratsaldean, Okendo plaza-tik aterako den desfile erraldoia egingo da.

Herriko kaleetatik barrena ibiliko da. Joko olinpikoetan oinarritutako jantziak, zein beste eratako mozerroak ikusiko dira honetan, baita dantza erakusketak ere.

Arratsaldeko 19:00ak aldera iritsiko dira berriro ere Okendora eta bi ekintza desberdin izango dira bertan. Batetik, dantzan jarraitu nahi dutenentzat, ABIBA disko jaiak, eta, beste ere bateko giroa nahi dutenentzat Amalur eskolak girotutako erromeria.

Bestetik Akelarre Gazte kolektiboko gazteek olinpiada herrikoiak antolatuko dituzte.

Eta gauean beste saio bat eskainiko du "ABIBA disko jaiak". Goizeko ordu txikiatararte arte arituko da Okendoko karpan.

Suarekin amaitu

Eta Inauteriak urteurren batekin amaituko dira. Hain zuzen ere, Euskal Inauterien konpartsak 30. urte ospatuko baititu igandearen.

Ohikoa den bezala, eguerdi eta arratsaldean egingo dute dantza herrian zehar eta 19:30ean Ilargi taberna parean, Lantz-eko Miel Otxin pertsonaia erreko dute Inauteriei amaiera emanez. •

Parte-hartzea eta herri apaintzea

Lasarte-Oriako Udalak eta Inauterietako ekintza desberdinetan parte hartuko duten elkarte, zein taldeek lan handia egin dute guztia antolatzeko.

Eta herriko giroa egun hauetan paregabea izan dadin, herritar guztiak parte hartzera animatu nahi dituzte antolatzaileek.

Apaintzea

Bide batez, Olinpiada eta jai giroa herri osora zabaldu nahi dute eta horregatik, etxeak apaintzeko eskaera egin dute.

Antolatzaileek aipatu digutenez, "ez du zertan konplexutasun handiko ezer



izan behar, balkoietan oihaltzatiak, puxiak eta girlandak jartzeari biderik ez litzateke izango".

Hala ere, Joko Olinpikoetako uztaiak, Lasarte-Oria-

ko olinpiaden logoa edo maskoten irudiak jartzeko aukera dago, iaz Beheko kaleko lagunek Kukuxumuxuko zezenekin egin zuten bezala. •